

ZABOR BILU ETA KALE GARBITZEKO ZERBITZUA HERNANIN

Egunero 15 tonelada zabor biltzen dira

Garbilitzaileek jendea kontzientziatu beharra eta makinaria berri gehiagoren premia ikusten dute lana behar bezala egiteko.



Tilosetako kontainerrek zaborrez gainezka. Ez omen ditugu ordutegiak errespetatzen.

Egunero-egunero 16 langileko ekipoak mantentzen du Hernani txukun. Goizean goiz hasi eta batzuk baldedorarekin kaleak garbitzen dituzte, ura presioan botata. Hartara, zikina bide ertzetan gelditzen da, eta gero datozenei lana asko errazten die. Atzetik barredora (aspiradora) eta erratzarekin ibiltzen direnak datoz. Beste bat sumideroak garbitzen ibiltzen da eta beste pare bat markesinak, kartelak, pintadak... Gaueko ha-marretan, berriz, zaborraren kamiona hasten da lanean.

TEKNOLOGIA BERRITU
"Erratzarekin askotan motz gelditzen gara" esan digu lan-

gile batek. "Orain badaude makinak aspiradora-lana egiten dutenak" eta oso onak omen dira. "Gainera, ez dira garestiak".

"Guk ez dugu sekula eskerronik jasotzen."

ORDUTEGIA BETE
Zaborra ateratzeko ordutegia betetzea da herriaren garbitasuna gehiago ziantzeko puntu garrantzitsu bat. Orain, arratsaldeko zortzietatik hamaiketara dago jarria. "Jendeak, ordea, edozein garaitan botatzen du." Kamioia ere hamaretan hasi beharrean hama-

bietan hasiz gero "hobeto" biltzaileen ustez. Hala ere, udalak herritarrak kontzientziazteko zerbait egin beharko lukeela diote.

SAN MARKOSERA
Errenteriako biltegi honetara joaten dira hernaniarren zaborrak. Orain, gainera, hondakin toxikoak (sukaldeko olioak, pinturak, kolak...) zuzenean bertara botatzeko aukera dago. San Joanak, Eguberriak eta sagardo bolada dira zabor pila handieneko urte garaiak: Aurtengo San Joanenetan 21 tonelada bildu ziren, egunero-koaz aparte. Garbitasunean 152.000.000 pezeta gastatuko ditu Hernanik aurtun. □

PELOTA

Baztan-Hernani gaur herri arteko pelota txapelketan

Iruritako frontoian izango dira partiduak gaur 16:30etan hasita. Hernanik 1-2 galdu zuen etxean.

HEGO Euskal Herriko lau txapeldunak jokatzeko ari dira Euskadiko herri arteko pelotari txapelketa egun hauetan. Hernanik bi partidu galdu eta bat irabazi zuen joan den asteburuan, eta ez du xamurra izango finalurrekoari buelta ematea. Unai Alvarez (Kadeteetan

atzelaria) eskuetako minez da eta bere partez Ioritz San Sebastianek jokatu du; gaintzean lehengo asteke berek jokatu dute. Yubero eta San Sebastianek kadeteetan, Mendizabal eta J. Zabalak jubentzetan eta Erroizenea eta F. Zabalak afizionatuetan. □

DBH-KO TITULURIK EZ DUTENENTZAT IKASTAROAK

Ikastaro batzuetan tokia bada oraindik

Sukaldaritza, automobil txapa eta pintura, igeltseritza eta zurgintza eman liteke izena.

ONGINTZA patronatuak (Buruntzaldeko beste zenbait udalekin batera) antolatu dituen ikastaroetan 85 lagunek eman dute izena. Azken eguna atzokoa zen, baina, oraindik talde guztiak osatu ez direnez gabonak arteko epea

dago jendeak izena emateko. Usurbilen sukaldaritzan; Andoainen automobil txapa eta pinturan; eta Lasarten igeltseritzan eta Aroztegian dago lekua. Hernanitik debaldeko autobusa aterako da egunero, bai joateko, bai etortzeko. □

ANGEL PIKABEAREN ATXILOKETA

La Santé'ko espetxean sartu dute

Juezaren aurretik pasata espetxeratu dute.

ANGEL Pikabea ereñotzuarra lehengo larunbatean Saran atxilotu zuten beste hainbat lagunekin batera ETaren aurka Lapurdin egindako operazioan. "armak eta leergailuak edukitzea eta dokumen-

tazio faltsua erabiltzea" leporatu diote. Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta Haika gazte erakundeak deituta manifestazioa izango da gaur Baionan 17.00etan azken atxiloketak salatzen. □

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA
00-01 IKASTURTEA:
Maila guztiak. Ikastaro bereziak Erritmoak
Goizez, arratsalde eta gauetz.
Matrikulaldia
Irailaren 22ra arte.
Galde ezazu euskaltegian (Biteri Kultur Etxean)!
☎ 943 331896
e-mail: euskaltegi@hernani.net
HERNANIKO UDALA

ITXASPE
ARRANDEGIA
Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

KixKal
Taberna

æk
izena eman

INFORMATIKA ARETOKO IKASTAROAK

IKASTAROA	DATA	HIZKUNTZA	ORDUTEGIA
WINDOWS + WORD 2000	Urriaren 28ik 6ra	Euskeraz	16ik 20ra
Microsoft EXCEL 2000	Urriaren 16ik 20ra	Euskeraz	16ik 20ra
Microsoft ACCESS 2000	Urriaren 23ik 27ra	Euskeraz	16ik 20ra
WINDOWS + WORD 2000	Urriak 21ik Azaroak 11ra	Gazteleeraz	9ik 14ra
INTERNET	Azaroaren 13ik 17ra	Euskeraz	16ik 20ra
FRONTPAGE 2000	Azaroaren 20ik 24ra	Euskeraz	16ik 20ra

INFORMAZIO GEHIAGO:
Larramendi kalea 11, 20120 HERNANI. Tfnoa: 943551000
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 15tik 22ra. Larunbatak 9tik 14ra.

HERNANI INSTITUTUA

Lanean ari direnentzat 21 ikastaro

Ikastaro guztiak debaldekoak dira. Lekuak izena eman ahala beteko dira.



Karmelo Labakako tornuetan ikasle eta irakasleak ahaleginetan.

HERNANI Institutuak urtero antolatzen ditu langileentzako ikastaroak enprekin elkarlanean. Ikastaro tekniko hauek lanean ari direnen prestakuntzari begira egiten dira.

AUKERA ZABALA

Eskaintzen diren 21 ikastaroak mekanika eta elektrizitate-elektronika alorrekoak dira: CNC fresadoran programake-

ta eta eragiketa, CNC fresadoran programaketa, elektroneumatika, CAD-autocad, kalitate kontrola, makina osagarriak, hidraulika, elektrohidraulika, instalatzaile karneta ateratzeko prestakuntza, instalazio domotikoen diseinua eta egitura: sistema zentralizatua, automatismo elektromekanikoak, automatismo programagarriak, antena instalazioak

montatu eta mantenimendua, eta CAD-elektrikoa.

Ikastaro guztiak Hobetuzek % 100ean laguntzen ditu; debalde dira, beraz, hartzen dituztenentzat. Astelehenetik ostegunera emango dira ordutegi ezberdinetan. Izen emateko edo xehetasun gehiagorako Karmelo Labakako zentrotik pasa edo 943 5519 58 telefonora deitu. □

FUTBOL LIGA

Gaur hiru partidu Zubipen eta hiru kanpoan

Hurrek, Gorenko mailakoek eta gazteek jokatuko dute gaur etxean.

HERNANIKO 6 taldek partiduak dituzte gaur: Zubipen, 11:00etan haurren ohorezko ligakoek, 16:30etan Gorenko mailakoek eta 18:30etan gazteen bigarren mailakoek. Kanpoan, berriz, nesken ligakoek, gazteen liga nazionale-

koek eta gazteen ohorezko ligakoek jokatuko dute. Bihar, 3. mailakoek etxean 18:00etan,

eta kadeteen ohorezko ligakoek eta kadeteen bigarren mailakoek kanpoan jokatuko dute. □



Hernaniko gazteak entrenamentuan.

ARIZMENDI
jateetxea

Egunero menu berezia
Asteartetik ostiral eguerdira
1350 pta
(gauetan ere bai)

Ostiraletik igandera
denboraldiko karta

Antziola auzoa, 86
943 55 68 67
20120 HERNANI

HITZ BITAN

✓ 'AURRERA' ELKARTEA

Aurrera elkartekoak Jauregi aldera joango dira adimen urriko jendearekin arratsalde pasa. Larunbatero antola-tzen dute irtenaldiren bat. Joan den astean Egian izan ziren, Porrontxotan, gaur baloiak hartu eta Jauregira jolasera; Aurrera begira, berriz, zerbait pentsatzen ari dira urrian zor-tzirako.

✓ BIHAR SAGAR ETA SAGARDO FESTA

Dena prest dago igandeko Sagar eta sagardo festarako. Aste barruan argazki erakusketa didaktikoa eta hitzaldia egon dira. Bihar, berriz, goizeko bederatziarako hasiko da festa txistulariekin. Gero etorriko dira erakusketak, probaketak, trikitixa txapelketak (*Kriskitinak* antolatua), sagar biltzeak... Guztia Tolare Sagardo Kofradiak antolatuta.

✓ POLITIKA.

Batasuna prozesuko bilera gaur Biterin. Goizeko hamarretan hasitan bilera-mintegia egingo dute Ezker Abertzaleko eta inguruko jendeak joan den uztailako bileretan proposatutako zenbait gairen bueltan.

✓ JUBILATUAK.

Gaur Elizondora joango dira egun pasa. Hernaniko Jubilatu Etxeak ia astero antolatzen du irtenaldiren bat. Batzuk Almeriara joanak dira eta beste 55 Elizondora joango dira gaur. Holakoetan, joan nahi duten guztiak izena eman eta zozketa egiten dute gero, autobusa bete arte.

✓ ARRAUNA

Hernaniko arraunlariek denboraldi bukaerako bazkaria dute gaur. Elur-Txori elkartearen egingo dute eta bertan bilduko dira Arraun Elkartearen direktiboak eta arraunlariak. Aurten bate-lako taldeak egon du, denboraldi ona.

✓ BONBA ABISUA

Joan den ostegunean bonba abisua izan zen kiroldegian. Arratsaldean ezezagun batek 112 larrialdietarako zenbakira deitu zuen kiroldegian bonba zegoela esanez. Ertzaintzak seiak aurretik kiroldegi osoa hustu eta dena miatu zuen bonbarik ba ote zegoen ikusteko. Ezer bilatu ez eta seiak eta hogeirako, ostera, denak barruan omen ziren.

✓ EREÑOTZUARRAK MENDIRA

Ereñotzuarrek Hiru Errege Mahaiarako espedizioa antolatu dute gaurko. Hasieran joatekoak dozena erdi bat baziren ere, azkenerako hogeita bosteko koadrila osatu da. Linzako aterpetik atera eta, joan eta etorri, zazpi bat orduko bidea dute. Bihar, gogoak eta indarrak elkar hartzen badute *Anira* dira igoko dira.

✓ MADRILERA DEKLARATZERA

EH-ko zinegotziak Madrilera joan beharko dute deklaratzera. Oraindik zitazio ofizialik jaso ez badute ere, prentsan zabaldu denez, Ekain Ruizen heriotz ondoko plenoan hartako erabakiengatik hartuko diete deklarazioa. □

A G E N D A	ERAKUSKETAK <i>Hernaniko Udalaletxea: mende bat bizirik</i> Udalaletxean bertan, 12:00-14:00 18:00-20:00.	<i>Juan Ramon Perez</i> Oreretarraren Kuadroak Txema taberan.
	<i>Kuba orain hamar urte.</i> Argazki erakusketa Zumardi jatetxean.	<i>Argazki erakusketa didaktikoa</i> Tolareak antolatuta Biteri kultur etxean
		<i>Argazki erakusketa AEKri buruzkoa</i> Garin tabernan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

⊕ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucha
Kardaberaz, 49
☎ 943 551793
▶ Gaez: Chucla
Kardaberaz, 49
☎ 943 551793